

AITA SANTUA VERSUS ARIZMENDIARRIETA

FRANTZISKO AITA SANTUA joan den apirilaren 21ean hil zen. 2013ko martxoaren 13an aukeratu zuten aita santu, Giorgio Bergoglio, Erromatako eliz gunetik aldentutako lurralde batetik zetorrena. Kazetari gutxik ezagutzen zuten. Batek galdera hau egin zion: Nor da Giorgio Bergoglio? Hura isilik egon zen pixka batean. Kazetariak, galdera intimoegia edo konprometituegia izan zitekeela pentsatuz, esan zion: Nahi baduzu beste bat egin diezazuket. Aita santu berriak erantzun zion: Ez, galdera garrantzitsua da: Giorgio Bergoglio misio bat jaso duen bekatari barkatu bat da.

Hamabi urteko aitasantutzaren ondoren, zein izan da Frantzisko aita santuaren misioa? Nire ustez, gure gizarte sekular eta plural honetan, humanizatzea eta ebanjelizatzea izan da. Frantzisko aita santuarentzat ebanjelizatzea denbora eta espazio bakoitzean Jainkoaren zeinuak sustatzea da, zeinak humanizazio zeinuetan zehazten diren, bai arlo pertsonalean, bai komunitarioan (familia, adiskidetasun harremanak) eta sozialean. Eta bere hitzarekin eta idazkiekin azpimarratu digu fede kristaua ez dela sinesgarria humanizatzen ez badu, baina ez proselitoak egiteko estrategia huts gisa, ebanjelioarekiko leialtasunagatik baizik.

Frantzisko aita santuak jakin izan du ulertzen eta lau haizeetara aldarrikatzen gizaki guztiek, guzti-guztiek, beren ideologia eta bizimodu bereziak alde batera utzita, duintasun bortxaezina dutela. Hala, 2013ko azaroko Evangelii Gaudium (Ebanjelioaren poza) lehen exhortazio apostolikoan, hainbat jarrera aipatzen ditu, gure munduan errotuta dauden eta bizi dugun une historikoan humanizazio prozesu osasuntsua eragozten edo zailtzen duten jokabide batzuei ezetz esaten jakitea dakartenak, ezetz esatea bazterketaren ekonomiari, diruaren idolatria berriari, indarkeria sortzen duen ekitate ezari, pasibotasun egoistari, ezkortasun antzuari, espiritualtasun mundukoari, gerrari.

Baina baietz esatea espiritualtasun integral baten erronkari, pertsonak sortzen dituen harreman berriei, Jesusi eta bere zorionbideen ebanjelioari: Zorionekoak Jainkoarengan konfiantza duten pobreak, dohatsuak negar egiten dutenak, zorionekoak justiziaren eta bakearen alde lan egiten dutenak...

Finean, Frantzisko aita santuak guztiok gonbidatzen gaitu bere ondarea hartzera, honela sintetizatu dezakeguna: Jainkoaren erresuma humanizazio zeinuen bidez zehaztu behar da familian, hezkuntzan, osasunean, teknologian, enpresan, gizartean, politikan eta erlijioan bertan, pertsonaren eta munduaren autonomia errespetatuz.

Horregatik guztiagatik, Frantzisko aita santua, eskerrik asko pertsonetako, komunitateetako eta herrietako hurbiltasunagatik, eta batez ere pobre, migratzaile, preso, gaixo eta ezjakinetako.

Eta, amaitzeko, galdera erraz bat egin nahi dut: Ikusten al dugu loturarik Frantziskoren eta Arizmendiarrietaren obraren eta misioaren artean? Zalantzarik gabe, bai. Espazio eta denbora distantziak gaindituz, biak Elizaren irakaskuntza sozialean inspiratu dira. Biek oinarrizko balioak bizi eta irradiatu dituzte: egia, askatasuna, justizia eta elkartasuna. Biek giza garapen integralaren alde lan egin dute. Biek jakin izan dute garai bakoitzaren zeinuak auskultatzen, bizitzea egokitu zaien denboran eta espazioan funtsezko eta premiazko beharrak aurkituz. Biek sentsibiltate berezia izan dute pobreetako. Biek giza garapenerako hain beharrezkoak diren dimentsioak zehaztu eta lotu dituzte: elikagaia, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, zaintza, espiritualtasuna. Biek jakin dute teorian eta praktikan uztartzen garapen pertsonalik gabe garapen sozialik ez dagoela eta garapen sozialik gabe garapen pertsonalik ez dagoela.

Uste dut biak opari izan direla Elizarentzat eta gizateriarentzat.

Pako Etxebeste

ALEko bazkidea